

Kritikoari gorroto. Mahai-ingurua

Hizlariak: Agus Perez eta Jaime Valverde. **Moderatzailea:** Karlos del Olmo.

Irakurketa dramatizatua: *Piztu gabeko zigarroak*, Xabier Lopez Askasibar.

Aktoreak: Maite Arrese eta Mikel Martinez.

Non: Koldo Mitxelena kulturunea, Donostia. **Noiz:** maiatzaren 13a.

Antzerki kritikariaren azalean

KRITIKOARI GORROTO. Hala zuen izena Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteak (EHAZE) Esperientziak jardunaldiaren baitan antolatutako mahai-inguruak. Bertan izan ziren, gorroto horren jomugan eta mikrofonoaren parean, egun antzerki kritika euskaraz egiten duten kazetari bakarrak: Agus Perez (*Berria*) eta Jaime Valverde (*Gara*). Hori bai, Karlos del Olmo moderatzaileak argitu zuenez, “maitasuna da gorroto guztien abiapuntua”.

Agus Perez *Euskaldunon Egunkaria* sortzearekin batera hasi zen antzerki kritikak idazten, eta bolada luzean euskarazko kritikari bakarra izan da. Epailearena baino, kritikariari laguntzailearen lana dagokiola argitu zuen. Jaime Valverde aldiz, hasiberria da, zortzi antzerki kritika soilik argitaratu baititu. Bere hitzetan, kritika ezinbestekoa da, “on egiten duen kaltea”.

Hizlariak eta moderatzaileak aitortu zuten, txikia da euskal antzerki sistema, eta ia denek eza gutzen dute elkar. Hori dela eta, Perezek konpainia izaten du gogoa kritikak egiten dituenean, euskalduna denean batez ere. “Antzezlanak prestatu dutenek merezi dute kanpoko irakurketa bat”. Bestalde, irakurleari begira, “irakurgarria” den testu bat idaztea izaten du helburu. Valverderen iruzkinak aldiz, funtzio pedagogikoa dute. “Irakurleari antzezlanak gustatuko zaion edo ez adierazten saiatzen naiz”.

Biek ala biek antzerkia ikusi eta berehala idazteko ohitura dute, egunean bertan edota hurrengo goizean bestela. Hala ere, zenbat eta denbora gehiago igaro, orduan eta hobeto barneratzen duela antzezlanak nabaritu du Valverdek. “Beran-



LANDER ARRETxea

duago idatzi ditudan kritikak izan dira sentazio onenak eman dizkidatenak”.

Perezek dokumentazio lan handia egin behar izaten duela aitortu zuen: “Lehen nire balizko jakiturian bilatzen nuen informazioa, orain internetek asko erraztu du lan hori”. Adituekin hitz egitea ere atsegin du, euren iritzia kontuan hartzeko. Valverderi arrebak laguntzen dio testuak errazago egiten, mundu akademikotik datorrenez, esaldi luze eta korapilotsuak idazteko joera baitu.

Hizlarien azalpenek kritikariaren lan “bakartia” ulertzen lagundu zien eserleketan eroso jarritako aktore eta antzerkizaleei, baina ez hizlarien azalpenek bakarrik. Izan ere, ariketa bitxia proposatu zuen Karlos Del Olmok: irakurketa dramatizatua ikusi ostean, ikusleek horren kritika egin behar izatea; ikusleak kritikoren azalean jartzea, alegia.

Xabier Lopez Askasibarren *Piztu gabeko zigarroak* antzerki laburra

izen zen aukeratutako testua, Edipo eta Yocastaren mito klasikoa gaur egunera ekartzen duena. Maite Arrese eta Mikel Martinez aktoreek euren ahotsarekin gorpuztu zuten antzezlanak, jatorrizkoan bi bazarriketa paralelo direnak testu bakarrean uztartuta.

Irakurketa amaitzean, isiltasunean murgildu zen aretoa, moderatzaileak xaxatuta zenbait kritikari sena piztu zitzaion arte. Gehientsuenek jatorrizko testua txalotu eta irakurketa-aren gehiegizko abiadurari erreparatu zioten, eta aktoreek ere izan zuten euren proposamena defendatzeko aukera. Amaitzeko, eztabaida horietan murgilduta zirela, kritikaren lanari buruzko esaldi borobilena bota zuen Ramon Agirre aktoreak: “Kritikoari, egurra eman behar duenean ere, antzerkia maite duela nabaritu behar zaio”. ■

Lander
Arretxea
Bereziartua

